

Hitzaurre gisa

Belen Uranga

Soziolinguistika Klusterra

b.uranga@soziolinguistika.org



Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi oroituz hasi nahi dugu zenbaki hau, ezin bestela! Dagoeneko dozenaka dira bere omenez eginiko aipuak eta oroit idatziak. Eta jarraituko dugu oroit eta idazten. Gurean erro oso sakonak ditu *Txillardegi*-k, bai Soziolinguistika Klusterrean eta, zer esanik ez, BAT aldizkarian.

Horregatik omendu zuen Klusterrak antolatu zuen bere lehen jardunaldian, 2008. urtean. Eta horregatik hurrengo urtean omeneko ale monografikoa eskaini zion BAT Aldizkariak egindako lanaren esker onaren adierazgarri. Bertan bildu ziren Euskal Herriko soziolinguista ugariren ekarpenak, soziolinguistikaren garapenean berak landutako

alderdi anitzak azpimarratu nahi genituelako. Oraingo honetan, Maria-Jose Azurmendi BAT Argitalpen Batzordekideak eskaini dizkion hitzei erantsi nahi genioke, soilik, omenezko zenbakian esaten genuena, alegia, balia dezagula oroit une hauek haren lanak berriro irakurri, aztertu eta behar bezala balioetsiak izateko, hori bailitzatekeelako merezimendu osoko omenaldia. Ez adiorik *Txillardegi*.

Laugarren urtean jarraian aurkezten ditugu HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika lehiaketako lan irabazleak BAT Aldizkarian. Apurka-apurka bere lekua hartzen ari da HAUSNARTU euskal filologo ikerlarien artean, eta baita euskararen inguruan egitasmo berritzaileak abian jarri eta praktika horien egituratze kontzeptuala eraiki nahi dutenen artean ere.

Aurtengo edizioan irabazle izan diren hiru lanak ezaugarri oso desberdinetakoak dira. *Euskararen belaunez belauneko jarraipena hizkuntza sozializazioaren paradigmatik* **Paula Kasaresek** eginiko lanak jaso du epai-mahaiaren aho bateko irabazle izateko aldeko iritzia. Lana ikerketa zabal baten emaitzen aurrerapen modura har daiteke. Egilearen hitzak erabiliz esan daiteke "...ordezkatzeko prozesuan amilduta zegoen herri batean azken berrogei urteotan haurrak euskaldun haztearen aldera gertatutako aldaketa aztertu" duela. Ikuspegi holistiko batetik abiatuta euskararen belaunez belauneko jarraipena aztertze marko teoriko berritzailea aplikatu du metodologia etnografikoa erabiliz. Nafarroako Irurita herrian egindako azterketa honetan ikusten eta aztertzen denez, "iruritarren belaunaldi bat izan da deliberatu duena bere seme-alabak euskaraz haztea, nahiz eta mintzaira hori guraso horien gehienek lehen hizkuntza ez izan". Hautu horren zergatiak eta nolakotasunak aztertu ditu Kasaresek lan interesgarri honetan.

Bigarren saria **Dabid Anaut** euskara teknikariaren *Sartu-irten bat auzoaren etxean* izenburuko lanak jaso du. Ikerketa-lana bainoago hausnarketa teorikoaren esparruan kokatzen da berau. Hizkuntzari begiratzeko modu ohi-koenak —baina ez bakarrak— diren ikuspegi filologiko eta soziolinguistikoiari, egileak ikuspegi biolinguistikoa eranstearren garrantziaz argudiatzen du lan honetan, modu oso iradokitzailean. Artikuluak aldarrikapen zehatz baten alde egiten du: ontzat eman ditzagun mintzairari eta hizkuntza-errealitate guztiei begiratzeko ikuspegi guztiak. Ildo honetatik soziolinguistikaren talaiatik biolinguistikari arreta berezia jartzen du, eremu horretatik soziolinguistikari egin dakioken balizko ekarpenaren bila.

Maier Ugartemendiak jaso du hirugarren saria *Hezkuntza marko hirueledunaren ondorioak* lana medio. Ikerketa-lan horretan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2010-2011 ikasturtean abian jarri zuen *Hezkuntza Marko Hirueleduna* izeneko hezkuntza-proiektua aztertzen da, proiektu hori abian jarri duten hainbat ikastetxetako esperientzia, hobeto esanda. Hezkuntza-eredu horrek eskolatan euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntza bati astean 5-6 ordu eskaintzea dakar eta gaur egungo A, B eta D ereduak desgertze-bidean jarriko dira egilearen ikuspegitik. Ikerketa honetan proiektuan parte hartu duten ikastetxe horietako esperientziak aztertu eta hainbat ondorio interesgarri atera ditu. Nolanahi ere, interesgarria da sarrera modura Euskal Herriko hezkuntza-ereduen historiari egileak egin dion sarreratxo, hezkuntza elebiduneko A, B eta D ereduaren bila-kaerari, eta baita hezkuntza elebidunarekiko jarreraren eta iritzien inguruko gaiari.

BAT Aldizkariak interesgarri ikusi du HAUSNARTU sarietara aurkezturiko beste lan batzuk ere argitaratu ematea, saririk jaso ez duten arren. Kasu batzuetan, herri jakin bateko euskararen inguruko azken urteetako bilakaera aztertu delako eta besteetan egitasmo praktikoen baten inguruko inguratze teorikoaren aldeko saiakerak direlako, Mikel Ozaitaren lanaren kasuan gertatzen den bezala.

Esate baterako, **Aitor Lizarazuk** *Zumarragako kaleetan euskararen erabilera indarberritzeko proposamena* lanarekin Zumarragan eta Urretxun gertaturiko euskararen kaleko

erabileraren jaitsierarekin kezkatuta —euskararen ezagutzak gora egin arren—, erabileraren indarberritzeko proposapenak egiten ditu, arnasmuneak kontuan hartuz, lagunartean, auzo hurbilean eta eguneroko kale-bitzian eragiteko. Horretarako, Joshua Fishmanen teoria ezaguna (*Reversing Language Shift*) darabil indarberritze horretan erabilgarri izango delakoan.

Mikel Ozaitak idatzi du *Auzoko Egitasmoa, gerturapen bat. Euskara eta aniztasuna abiapuntu dituen egitasmo pilotuen gaineko azterketa*. Egitasmoak euskara, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna, eta herritarrak barnebiltzen ditu, eta immigrazioko herritarrak euskarara gerturatzeko du helburu. Egitasmoa Agurainen, Bergaran, Berriatuan, Donostiako Antigua auzoan, Orion eta Zeanurin abian jarri da. Parte hartzen dute bi profiletako kideak: Auzotarrak (egunerokotasunean euskaraz bizi diren herritarrak) eta Auzokideak (euskara ez dakiten herritarrak). Auzokok bi profil horien arteko euskarazko harreman pertsonalak bultzatzen ditu, euskaraz jakitea kohesioa eta berdintasun soziala bultzatzeko faktore garrantzitsua dela nabarmenduz.

Ekina baragarria da! Badozak hamabost urte Arratiako ikastetxeetan normalkuntza proiektuak abian direla du izenburu **Jasone Aldekoak** eginiko lanak. Arratiako hainbat ikastetxe azken hamabost urteetan hizkuntza-normalizaziorako proiektuak garatzen ari direlarik, bertako ikasleek euskara ikasi ez ezik, auzoan eta kalean euskaraz gehiago egin dezaten, eroso eta natural, euskararen normalizazioari ekarpena egin nahi luke. Horretarako, Peter Sengek eraldatze prozesuen azterketarako proposatu duen hamar erronken eredu oinarri hartu eta Urtzi Barrenetxeak egindako moldaketaz baliatu da egilea. Funtsa horre-

kin, Arratiako ikastetxeek elkarlanean eta inguruko kultura-eragileen laguntzarekin zer nolako erantzuna ematen ari diren azaldu eta, aldi berean, hausnarketari eta emaitzen balioespenari ekin dio.

HAUSNARTU sariei eskainiko zenbaki monografiko honi amaiera emateko **Enara Bellosoren** lana ekarri dugu. Lan honetan ere, herri jakin bateko egoeraren atal bat aztertuta, kasu honetan ahozko hizkuntzaren erabileraren ahozko hizkuntzaren erabileraren garrantzia hizkuntzaren normalizazioan, Barakaldon izenburupean hizkuntza bat ahoz erabiltzeak duen garrantzia azpimarratzen du. Ezkerraldeko eskualdean euskararen normalizazioari buruzko ikerketa gutxi egin izana deigarria da eskualde horretan. Izan ere, populazioaren gehiengo erdalduna izan arren, euskaldun kopurua izugarri handia baita —gutxiengo izan arren—. Ere horretako euskararen egoera oso larria delako irudia plazaratzen du egileak, lan honetan egin duen Barakaldoko euskararekiko hiriaren bilakaera historikoaren hainbat ezaugarri erakutsiz. Haur eta gazteengan zentratutako ikerketa da, bereziki, horiek baitira euskaldun kopururik handiena; gainera, erabileraren eragin nahi bada, ezinbestekoa da euren jarrera eta hizkuntza-ohiturak ezagutzeko.

Eta besterik gabe, soziolinguistika-ezagutzaren garapenean ziztagarri izan nahi duen ekimen honek irakurlearengan interesa piztuko duelakoan, horrela eman diogu amaiera HAUSNARTU sariei eskainitako zenbaki honi. •